

AGENDA @ Irrati-telebista

ekografiak @ FERMIN ETXEGOÏEN

Ezkutaezinak

El Comisario telesaila jendeari zergatik gustatzen zaion eta zergatik ez zaion gustatzen aritu nintzen atzoko zutabea, baina ez nuen asmatu hitz gakoak aurkitzen. Gustatu-ez gustatu ideia kontrajarriak lotzen dituen kontzeptua oso begi bistakoa izan arren telesail horretan: *makarrismoa* da kontzeptua, barkatuko dute iparraldeko lagunek, baina ez dakit nola esan euskara jatorrean.

Nolanahi ere: jendeari *El Comisario* gustatzen zaio (besteak beste) bertako poliziak ez direlako makarra batzuk. Halaber, *El Comisario* telesaila ez da sinesgarria bertako poliziak ez direlako makarra batzuk.

Honetaz konturatu nintzen —marka da, gero!— Juan Ignazio Perez Iglesias eta Iñaki Antiguedad buruz buru eztabaidatzen telebistan ikusi nituela. Aspaldi ez bezala, lehian ari ziren arerio biek ez baitzuten ematen makarra batzuk, jende zibilizatuak baizik.

Bai, bai. Irakurri duzuen bezala gertatu zen. Bien artean errektore postua zegoen jokoan, baina haiek errespetu osoz hitz egiten zioten elkarri...

Sinetsezina!

Orduan konturatu ere nintzen *fair play* (joko garbia) aspaldi desagertua dagoela politika esparrutik. Eta oso gutxi direla egun botere politikoaren inguruan dabilzan gizon-emakume lasaiak, normalean kontrakoa adierazten baitute: istiluetarako gogo bizia eta berehalakoa.

Bozketa egunaren aurretik, hautagaiok elkarren kontra ikusteko bi aukera izan nituen telebistan: Canal Bizkaia katean gaztelaniaz lehendabizi, Julio Florrek zuzendutako mahai-inguruan, eta ETB1en, biharamunean, Asier Odriozolaren gidaritzapean. Zera esan dezaket: gaztelaniaz primeran moldatzen direla. Frantsesez ote dakiten ez zuten argitu.

Baina interesgarria iruditzen zait gure unibertsitateko goi kargudun hauek Euskal Herriko bi erdarak menperatzea, hemengo hizkuntza errotoak baitira egun...

(Zinismoz ari naiz. Baina ez zait antzematen, noski, Euskal Herriko Unibertsitateko errektoregai biak euskaldun osoak izateak izugarri pozten gaituela azpimarratu beharra baitago, oraindik ere).

INTERNET

Euskara hutsezko lehenengo sareko telebista sortu dute: 'euskaraz.tv'

Proyeccion ekoiztetxeak eginiko webguneak doako bost telebista kanal eskaintzen ditu

URTZI URKIZU - DONOSTIA

Internet bidezko euskarazko lehenengo telebista jarri du marxiari Bizkaiko Proyeccion ekoiztetxeak. Aurretik gaztelaniazko webgunea egiten zuen Proyeccionek, eta orain euskarazkoa jarri dute sarean.

Gerardo Fernandez *proyeccion.tv* eta *euskaraz.tv* guneen zuzendariak proiektua nola sortu den azaldu dio BERRIARI: «2001. urteko abenduan hasi zen funtzionatzen *www.proyeccion.tv*. Euskarazko informazioa ez genuen non sartu, *www.euskaraz.tv* egitea erabaki genuen arte. Iaz egin genuen webgunearen diseinu grafiko eta tekniko, eta lehenengo probekin hasi ginen».

www.euskaraz.tv helbidean doako bost kanal eskura daitezke: albisteak, hitzaldiak, turis-

mo erreportaiak, erakusketak eta Zabalik kanala. «Oraingoz, Zabalik kanal hori da diru iturri nagusia. Erakunde eta enpresei aukera ematen diegu beraien ekitaldietarako informazioa sar dezaten: hitzaldiak, prentsurrekoak, agiri ofizialak, elkarrizketak eta abar. Erakunde horiek ordaindu egin behar dute informazioa Zabalik kanalean sartzeagatik. Gainerako edukiak barne ekoizpenekoak dira», adierazi du webguneko zuzendariak.

Etorkizunean, erronka handiagoak etorriko dira

Euskaraz.tv ikusi ahal izateko, gutxienez Pentium2 bat behar da, eta RealVideo programa ez duenak *euskaraz.tv*-tik jaitsi dezake, bideoak ikusteko.

«Hedabideetan islarik ez du-

ten alor soziologiko kulturalak webgunean sartzen ahalegintzen gara», dio Fernandezek. Proyeccionek, ekoiztetxea den neurrian, etorkizunean saioak egiteko asmoa du. «Urte askotan ETBrentzat egin dugu lan, eta noizean behin lanen bat egiten dugu eurentzat. Ideia haztea da. Autofinantzan aurrera egiten dugun helnean, erronka handiagoi egingo diegu aurre. Telebista saio bat egiteko plato bat behar genuke eta beste mota bateko edizio bat», esan du Fernandezek. Une honetan soilik bideoak ematen dituzte bi webguneetan. «Bestalde, banda zabalari begiratu behar zaio. Diseinuetan aurrera egiten dugun neurrian, banda zabalak aurrera egin behar du kalitate irudi hobea eskaini ahal izateko. Baina oraingoz diru asko eta esfortzu handia behar du litzateke

beste proiektu handiagoetan sartzeko», adierazi du Fernandezek. «Enpresa txikia gara, eta espero dugu erakundeetatik erantzuna izatea, publizitatea jar dezatela», dio *euskaraz.tv*-ko zuzendariak.

esanak

GERARDO FERNANDEZ

(*'Euskaraz.tv'*-ko zuzendaria)



«Zabalik kanala da diru iturri nagusia; erakunde eta enpresen informazioa ematen du»

«Hedabideetan islarik ez duten alor soziologiko kulturalak sartzen ahalegintzen gara»

«Banda zabalak aurrera egin behar du, kalitate hobegoko irudia eskaini ahal izateko»

kirol betekada

Larunbata 03
ESKUBALDIA
Espainiako Kopako finalerdia: Portland-Ciudad Real.
La2 17:00

Larunbata 03
FUTBOLA
Ingalaterrako Kopako finalerdia: Arsenal-Manchester United.
ETB1 17:00

Larunbata 03
PILOTA
Eskuz banakako txapelketako partida: Zearra-Gofi III.a.
TVE1 18:00

Larunbata 03
FUTBOLA
Espainiako Ligako bigarren mailako partida: Eibar-Rayo Vallecano.
ETB1 18:25

Larunbata 03
FUTBOLA
Espainiako Ligako partida: Bartzelona-Vila-real.
ETB1 21:55

Igandea 04
ARETO FUTBOLA
GSI Bilbo-F.C. Bartzelona partida zuzenean.
ETB1 12:10

Igandea 04
AUTOMOBILISMOA
1 Formulako Bahraingo Sari Nagusia.
Tele5 / TF1 13:00

Igandea 04
TXIRRINDULARITZA
Munduko Kopako proba: Flanresko Tourra.
ETB1 15:30

Igandea 04
ESKUBALDIA
Espainiako Erregearen Kopako finala.
La2 16:00

Igandea 04
PILOTA
Manomanistako partida: Koka-Xala.
ETB1 18:15



'EUSKARAZ.TV' webgunean bost kanal aurki daitezke euskaraz. PROYECCION